



EUSKAL ITZAK ANDOLA'N (ANDOSILLA) NAPARROA'N

Orain dela gutti, Andola'ko euskal giroa agertzen genuen, "DIARIO DE NAVARRA" izparringian (1995-1-22). Gaur berriz bertze zerbait erran nai dugu.

Ba dago gizon eldua, Jesus Pagola, Andola'tarra, bertan jaioa ta azia, asmo on bat izan duena. Berez sortu zaio, errian entzundako euskal erroko itzak bilteza, eguneroeko erdal elkarizketan erabiliak. Aspaldi asitako lana da, poliki poliki egina. Aurtzaroan erraten ziren itzak gogoratu bear eta gainera, baita jakin euskarra izkuntzatik datoztela; gero itzek zerrenda batean banaka jaso, aztu gabe. Lana benetan polita ta etorkizun aundikoa.

Andola erria, naiz Ibero ibai nagusitik urbil izan, ba ditu sendi aunitz euskal abizenekin. Sarrera gisa, erranen dugu urrutizkinako liburuan agertzen diren Andola'ko euskal sendien izenak; den denak 704 dire, euskaldunak aitaren edo amaren aldetik 350, eundik berrogeitabederatz. Ikusten dugunez sendi askok ba dauzkate euskal aztarnak.

Asieran aipatutako euskal erroko itzen zerrenda ementzen datorkigu:

TOKI IZENAK

"cuesta de la AMONA" = erri gainean

"UNSON" = Mendi Lerin aldera

``ZUBIRTE" = Iturria Falces aldera

GIZAGAIAK

"AMONA" = aur txikiei beldurra emateko erabilia

"ARREBUCHA" = nastua

"CHANDRIO" = gaizki egina

"CHIRGO" = gajztakeria

"CHURI" = ilean eramatzen den zapi zuria

"NACO" = gizon ustela

"NARRO" = ltxura txarrekoa

"NORRO" = Gaizki ikusia

"PAÑTASMA" = Ameskari

"ZAMINA" = Zigorrada

BIZIDUNEN GAIAK

- "BIZQUE" = Suge mingaina
- "CIRRIA" = Ardi zikina
- "ARDACHO" = Muskerra
- "GARDAMA" = Arrak
- "MICHARRA" = Muxar
- "SARANDILLA" = Muskerkume

LANDAREGAIAK

- "ARAGOLLA" = Landarea arantzez betea
- "ARANON" = Baxaranak
- "BARDA" = Sasia
- "CORRUSCO" = Ogi zatiaren ertzea
- "COSCORRO" = Artalepoa
- "CHARADA" = Su andia
- "CHINCHORRA" = Koipearen zati lodiak
- "JUNZA" = Alkiak egiteko landarea
- "ILAGA" = Arantzazko sasia
- "MARAGOLLA" = Landarea igali gorriekin
- "MARANON" = Basakarana
- "OLLAGA" = Sasia
- "SARDON" = Landare adarrez betea
- "ZABORRA" = Landare galduak
- "ZARRIA" = Aberen ille zikina
- "ZURRAPA" = Uraren zikina

GAUZAK

- "ESPONDON" = Arpea
- "GARRAIÑCHA" = Sare itxia arrantzarako
- "ZACURRO" = Egur zatia
- "ZACUTO" = Pardela
- "ZAMBULLO" = Zanbulua (columpio)
- "ZARATA" = Loi mea

AURREN JOLASAK

- "LURIQUI" = Zapi bilduarekin jotzeko jolasak.
- "ZURRUN BUTUN BUTA BUTERA ZURRIKI FUERA" = (Aukeratzeko, izendatzeko edo ordaintzeko jolasak)

Euskal itzen erroak ditugu emen, euskara biziaren aztarnak, gaur arte iraun dutenak.

Nor dugu Jesus Pagola/itz zerrenda onen egillea? Andola'n jaio da 1929'garren urtean. Emen bizi zen amabi urteak bete arte (1942). Ikasketak egin ondotik, Iruna'n asi zen lanean eta an bizi da geroztik.

Jesus Pagola, euskalzalea dugu: Kampion osorik irakurri du.

Lan onen ereduak, Nafarro'ko toki aunitzetako argi andia ematen du.

LATXAGA